# BETAURREKO MAGIKOAK OPARITU DIZKIZUTE

Irati Majuelo Itoiz
DBH 3. eta 4. kurtsoak 2. saria
Iruñeko Eunate BHI

Betaurreko magikoak
a zelako marabila!
behar ditut joateko
errealitate bila
mundua morez pintatuz
azaleratu dadila
orain arte mende luzez
iraun duena ixila
jendea hau estaltzeko
nahiz den nahiko abila
behingoz oihuka ezazu
estaliz ahots umila
ausartu emakume ta
hartu gogor maratila
zure bihotz sentibera
ez dagoelako hila

nola gizona betitik
izan den munduko heroia
ta nola emakumea
izan den bere morroia
aski da garaia dugu
alda dezagun gidoia
kororik gabe gelditu
daiteke noizbait lehoia
betaurreko hoiek jantzi
ta ikusiz egi doia
kateak aska ditzagun
jo dezagun jada goia
desagertuz txikitatik
sartu ziguten pozoia
marinela ere bihur
litekelako patroia

zure irudia inposatuz
kalean mila enpresa,
S neurriko jertseez
ezin zaitezkela kexa,
“gizon indartsuren batek
eman behar dizu babesa”
ez omen zarelako gai
ahoskatzeko ezetza
baina ez zara printze urdinak
itxoiten ditun printzesa
errealitate irrealari
egin baitiozu ihesa
piztu ezazu zuk garaiz
bizitzak behar dun metxa
bizi ezazu zuk noizbait
sortu zenuen ametsa.